

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA, TURISMO ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

310/2026 Foru Agindua, ekainaren 15ekoa. Karrerako funtzionario izendatzea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorren 2021eko eta 2023ko enplegu publikoaren eskaintzetan karrerako funtzionario gisa sartzeko (eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: Teknikariak; klasea: Erdi Mailako Teknikaria; plaza: industriako ingeniari teknikoa; sailkapen azpitaldea: A2; kodea: 2119)

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko diputatuaren abenduaren 18ko 671/2024 Foru Aginduaren bidez, onespena eman zitzaien 2021eko, 2022ko eta 2023ko enplegu publikoaren eskaintzetan Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorren zerbitzura karrerako funtzionario sartzeko deitutako hautaketa prozesua arautzeko oinarri orokorre.

Abenduaren 18ko 674/2024 Foru Aginduaren bidez, onespena eman zitzaien Arabako Foru Aldundian karrerako funtzionario sartzeko 2021eko eta 2023ko enplegu publikoaren eskaintzetako hautaketa prozesuaren deialdiari eta oinarri espezifikoari (eskala: administrazio berezia; azpieskala: teknikariak; klasea: erdi mailako teknikaria; plaza: industriako ingeniari teknikoa; sailkapen azpitaldea: A2).

Hautaketa prozesua amaitu eta epaimahai kalifikatzaileak hura gaingitu duten izangaiak izendatzeko proposamena egin ondoren, karrerako funtzionario izendatuko dira (eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: Teknikariak; klasea: Erdi Mailako Teknikaria; plaza: industriako ingeniari teknikoa; sailkapen azpitaldea: A2).

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretuaren bidez, funtzio publikoaren arloko eskumenak ezarri ziren, eta uztailaren 29ko 29/2025 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onetsi zen. Horrez gain, diputatu nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuak Arabako Foru Aldundiaren sailak zehaztu zituen 2023-2027 legegintzaldirako. Horrela, bada, bat etorritik dekretu horietan guztietan xedatutakoarekin, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Karrerako funtzionario izendatzea Arabako Foru Aldundiko Administrazio Orokorren 2021eko eta 2023ko enplegu publikoaren eskaintzetan karrerako funtzionario gisa sartzeko deialdia gaingitu duten izangaiak (eskala: Administrazio Berezia; azpieskala: Teknikariak; klasea: Erdi Mailako Teknikaria; plaza: industriako ingeniari teknikoa; sailkapen azpitaldea: A2), jarraian adierazten diren lanpostuei adskribatuta:

IZEN-ABIZENAK	LANPOSTUAREN KODEA	LANPOSTUAREN IZENA
Pedro María Argaña Rey	1221.002	Mantentze lanetako erdi mailako teknikaria
Miren Marquín González	1382.001	Ingurumen kalitateko erdi mailako teknikaria

Bigarrena. Izendatutako pertsonen 2026ko uztailaren 6an jabetu beharko dute esleitutako lanpostuak.

Ezarritako egunean lanpostua jabetzan hartzen ez badute, salbu eta ezinbestezko kasuetan, galdu egingo dituzte deialdiaren ondoriozko eskubideak Arabako Foru Aldundiko funtzionario izaera izateko.

Hirugarrena. Sartu berri diren funtzionarioak esleitutako lanpostuei atxikitzeak behin betiko izaera izango du, eta lanpostuak hornitzeko sistemaren bidez lortua izango da ondorio guztietarako.

Laugarrena. Foru agindu honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, edo, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua, hilabeteko epean, ebazpena hartu duen organo berean. Hori guztia, Administrazioarekiko Auzibideen Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik –Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan ezartzen duenarekin lotuta–.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 15a

*Lehen diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza,
Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*
CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR